



ARABAKO KUADRILLA ARTEKO BERTSO TXAPELKETA 2010

Zer gertatuko litzake Arabako Bertsozale Elkarteak AbTx, urteroko bertsolari txapelketa, bi urtean behin antolatuko balu?

Eta tarteko urte horretan taldekako txapelketa bat antolatuko balu?

Eta bertan sekula aritu ez diren bertsolari, gaijartzaile, epaile, . . . ezberdinek parte hartuko balute era herrikoi eta ez hain formal batean?

Eta txapelketa honen finala Printzipal antzokian egin beharrean Gasteizko Alde Zaharreko frontoian bertso bazkari forman egingo balitz, festa handi baten gisan?

Eta . . . ?

Galdera hauek erantzun nahian,
bertsolaritzak daukan izaera herrikoiari helduz,
Arabako daukagun sarea handitu nahian, . . .

2010erako Arabako Kuadrilla arteko Bertso Txapelketa antolatu dugu.

1. HISTORIA

Arabako Bertsolari Txapelketa bere laugarren garaian sartuko da 2010.urtean. 1984. urtean lehenengo aldiz txapelketa bat antolatu zenetik aldaketa dezente jasan ditugure egunetaraino, izena eta izana aldatu dituela esan daiteke. Baina emandako aldaketa eta aurrerapauso guztiei esker, lortu dugu gaur egun gauden lekuan egotea.

urtea	Lekua: GASTEIZ	izena	Txapelduna
1984	Florida antzokia	Arabako Txapelketa	Juan Isasi "Txinotxu"
1990	Florida kultur etxea	I. Prudentzio Deuna sariketa	Abel Enbeita
1991	Florida kultur etxea	II. Prudentzio Deuna sariketa	Pedro Bizkarguenaga
1992	Florida kultur etxea	III. Prudentzio Deuna sariketa	<u>Rikardo Glz de Durana</u>
1993	Florida kultur etxea	IV. Prudentzio Deuna sariketa	<u>Zigor Enbeita</u>
1994	Florida kultur etxea	V. Prudentzio Deuna sariketa	<u>Zigor Enbeita</u>
1995	Florida kultur etxea	VI. Prudentzio Deuna sariketa	<u>Rikardo Glz de Durana</u>
1996	Florida kultur etxea	VII. Prudentzio Deuna sariketa	<u>Asier Iriondo</u>
1997	Florida kultur etxea	VIII Prudentzio Deuna sariketa	<u>Asier Otamendi</u>
1998	Florida kultur etxea	IX. Prudentzio Deuna sariketa	<u>Asier Otamendi</u>
1999	Florida kultur etxea	X. Prudentzio Deuna sariketa	<u>Asier Otamendi</u>
2000	Florida kultur etxea	XI. Prudentzio Deuna sariketa	<u>Asier Otamendi</u>
2001	Florida kultur etxea	XII. Prudentzio Deuna sariketa	<u>Asier Otamendi</u>
2002	Printzipal antzokia	2002ko Arabako Txapelketa	<u>Asier Otamendi</u>
2003	Printzipal antzokia	2003ko Arabako Txapelketa	<u>Zigor Enbeita</u>
2004	Printzipal antzokia	2004ko Arabako Txapelketa	<u>Asier Otamendi</u>
2005	Guridi antzokia	2005ko Arabako Txapelketa	<u>Asier Otamendi</u>
2006	Guridi antzokia	2006ko Arabako Txapelketa	<u>Zigor Enbeita</u>
2007	Guridi antzokia	2007ko Arabako Txapelketa	<u>Oihane Perea</u>
2008	Printzipal Antzokia	2008ko Arabako Txapelketa	<u>Asier Otamendi</u>
2009	Printzipal Antzokia	2009ko Arabako Txapelketa	<u>Oihane Perea</u>

Sustraiak errotuz izan zen 2009ko Arabako Bertsolari Txapelketako leloa, eta horixe izan da Arabako Bertsozale Elkartearen sortu zenetik, eskuartean izan dugun erronkarik garrantzitsuenetako bat. Bertsolaritza Gasteiz edo Aiara aldean bakarrik zen ezaguna. Baina gaur egun, herrialde osoan lantzen da bertsolaritza ikastetxez ikastetxe, hainbat herritan bertso-eskola berriak sortu dira eta bertsolaritzaren lanketa, sustapena eta transmisioa eskualde guztietara zabaldu da.

Sustraiak errotu ditugu, baina hazteko garaia da orain. Eta horrelaxe, hazteko gogoz sartuko gara 2010. urtean. 2009ko Arabako Bertsolari Txapelketa arrakastatsuak ilusio eta indar berriekin jarri baikaitu urte berriari begira.

2. 2010eko TXAPELKETAREN ABIAPUNTUA

2010.urteko Txapelketa hau Arabako Bertsozale Elkartearen urteko apustu garrantzitsuena izango da. Elkarlanean jende multzo handi bat batzea espero dugu, eta ezbairik gabe, elkarlan honek biharko herrialdeko bertsolaritzaren oinarria sendotu eta ziurtatuko du.

Garai berri bat zabaltzera goaz eta ausartak izatea erabaki dugu. Txapelketa ezberdina izango da, bertsolari-bertsozaleen txapelketa, guztiok gozatzeko txapelketa. Hauxe izango da laburbilduz 2010eko planteamendua:

Eskualdeka osatutako taldeetan bertsolari-bertsozaleak elkartu eta herrien eta eskualdeen arteko bertsolari txapelketa antolatu dugu

Txapelketa honetan inoiz aurkeztu ez diren bertsolariak aurkeztea aurreikusten dugu, gai jartzailer berriak trebatuko dira eta bertso epaile berriak sortuko dira. Ez da banakako lehiarik izango, talde eta auzo lana izango dira nagusi, eta horrek guztiok gozatzeko moduko festa handi bat antolatzeko beta emango digu. Bertsolaritzaren sare soziala zabalduko da bertso-eskola edo herriz herriko bertsozale taldeen auto antolaketa eta ekinenari esker. Laburbilduz, Araba bertsotan ipiniko dugu.

3. HELBURUAK

- Bertsozaletasuna hedatzea, bertsogintza herrikoiaren eredua zabaltzea.
- Bertso-eskolak bultzatzea, indartu daitezen eta aurrera egin dezaten. Zenbait lekutan bertso-eskola edo talde berriak sortzea.
- Herriak eta eskualdeak aktibatzea, jende berria erakartzea bertsogintza, antolaketa, gai-jartzailer eta epailetza eremura.
- bertsolarien eta bertso-eskolen arteko harremana bultzatzea eta baita belaunaldi ezberdinen artekoa ere.
- 2011ko Arabako bertsolari txapelketa txukun baten oinarria jartzea.
- Eskualde eta herri mailako erakunde eta elkarteekin elkarlan bide berriak irekitzea.

4. TALDEAK

Bederatzi taldek parte hartuko dute:

- AIARALDEA: talde bat.
- ZUIA-GORBEIALDEA: 3 talde (Aramaio, Legutio eta Urkabustaiz)
- LAUTADA: talde bat
- GASTEIZ: 3 talde.
- ERRIOXA: talde bat


Taldeak Arabako kuadrilla bereko jendez osatu dira.

Hiru bertsolariz gutxienez eta sei gehienez elkartu dira. Hauetaz gain, gai-jartzaileak, epaileak, idazkariak, soinu-ekipo arduradunak, argazkiralari/kazetariak, sukaldariek eta trikitilariek osatuko dute taldea. Guztira 11-14 lagun.

5. EGITURA

Taldeak 3 liga ezberdinetan banatuko dira, hauexek:

ZUIA-GORBEIALDEKOKo LIGA	ALE LIGA	GASTEIZko LIGA
Elosuko Iturrigorri	Aiaraldeko Altubepekoak	Gasteizko Kakiturri-Ehari
Aramaio	Lautadako Sorginetxe	Gasteizko Muñoko Katuak
Izarrako Bertso-Eskola	Errioxa	Gasteizko Aizkorak zorroztu



KANPORAKETAK

9 talde. Eskualde mailakoa. Liga bakoitzean 3 talde elkarren kontra (3 saio). Afari formatua

- Gasteizko bertso liga: 3 saio
- Zuia-gorbeialdeko bertso-liga: 3 saio
- ALE Bertso liga (Aiara, Lautada eta Errioxaren artekoa): 3 saio

Ligako irabazlea finalerdira joango da.

FINALERDIA

Liga bakoitzeko irabazleen arteko hiru saio. Beraz, 3 talde elkarren kontra. Jaialdi formatua

FINALA

Finalerdietan sailkatutako lehenengo bi taldeek jokatuko dute. Bazkari-jaialdi formatua

6. EGUTEGIA

OTSAILAK 19, ostirala, afaria: Aramaio – Izarrako Bertso-eskola

OTSAILAK 27, larunbata, bazkaria: Lautadako Sorginetxe – Errioxa

OTSAILAK 27, larunbata, bazkaria: Gasteizko Aizkorak Zorroztu – Gasteizko Kakiturri-Ehari

MARTXOAK 5, ostirala, afaria: Aiaraldeko Altubepekoak - Lautadako Sorginetxe

MARTXOAK 6, larunbata, afaria: Elosuko Iturrigorri - Aramaio

MARTXOAK 12, ostirala, afaria: Izarrako Bertso-eskola – Elosuko Iturrigorri

MARTXOAK 13, larunbata, bazkaria: Gasteizko Kakiturri-Ehari – Gasteizko Muñoko Katuak

MARTXOAK 26, ostirala, afaria: Gasteizko Muñoko Katuak – Gasteiz Aizkorak Zorroztu

MARTXOAK 27, larunbata, bazkaria: Errioxa – Aiaraldeko Altubepekoak

APIRILAK 11, igandea, Zigoitiko aretoa

FINALERDIA

APIRILAK 18, igandea, Araiako Andramari aretoa

FINALERDIA

APIRILAK 25, igandea, Amurrioko aretoa

FINALERDIA

MAIATZAK 8, larunbata, bazkaria, Gasteizko Auzolana pilotalekua

FINALA

Afariak 20:30etan hasi

Bazkariak 14:00etan hasi

Saioen kanta-lekuak:

	KANTA LEKUAK
Aramaio	Marixeka Soziedadea
Elosuko Iturrigorri	Elosuko Txokoa
Izarrako Bertso-eskola	Izarrako Frontoia Tabernan
Aiaraldeko Altubepekoak	Lezamako Txokoa
Lautadako Sorginetxe	Zalduondoko Zeledon Txiki Elkarttean
Errioxa	Oiongo Azkena txokoa
Gasteizko Muñoko Katuak	Gaztetxea
Gasteizko Kakiturri-Ehari	Kakiturri-Ehari Elkarte
Gasteizko Aizkorak Zorroztu	Aizkora Taberna

7. EPAITUKO DEN LANA

Taldeko bertsolarien artean banatu behar duten lana:

KANPORAKETAK

- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 8ko nagusian 3na bertso
- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 8ko txikian 3na bertso
- Bakarka lau oinak emanda bi bertso 8ko txikian
- Bukaera emanda 8ko nagusian bertso bat
- 2na punturi erantzun 8ko txikian.
- Hitz bat emanda bertso bat nahi den doinu eta neurrian
- Taldeka, gaia emanda, taldeko 3 laguneren artean, 3na koplak

FINALERDIA

- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 8ko nagusian 3na bertso
- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 8ko nagusian 3na bertso
- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 8ko txikian 3na bertso
- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 8ko txikian 3na bertso
- 2na punturi erantzun 8ko txikian
- Gaia emanda bi bertso nahi den doinu eta neurrian
- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 10ko txikian 3na bertso
- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka puntuka 6 bertso osatu arte
- Taldeka, gaia emanda, taldeko 3 laguneren artean, 3na koplak

FINALA

- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 8ko nagusian 3na bertso
- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 8ko txikian 3na bertso
- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 8ko txikian 3na bertso
- Taldeko batek beste taldeko batekin ofizioka 6ko motzean 3na bertso
- 3na punturi erantzun 8ko txikian
- Gaia emanda 2 bertso nahi den doinu eta neurrian
- Taldeko batek beste taldeko baten kontra 3na koplak
- Talde bakoitzak (taldekide guztiek kantatu) segidillan 4minututan minuturo hitz ezberdin bat emanez

8. EPAILEAK, EPAITZEKO ERA

KANPORAKETAK

Arabako Bertsozale Elkartek hiru epaile jarriko ditu: Patxi Aizpurua, Xabier Ormaetxea, Ekaitz Elorriaga. Hiru liga ezberdinen artean banatuko dira eta bakoitzak liga bateko hiru saioak epaituko ditu.

Talde parte-hartzaile bakoitzak epaile bat ipiniko du. Beraz, saio bakoitzean hiru epaile egongo dira.

FINALERDIAK ETA FINALA

Arabako Bertsozale Elkarteko hiru epaileak eta talde parte-hartzaile bakoitzeko epailea. Guztira bost epaile saio bakoitzean.

9. GAI JARTZAILEAK

1. Fasea:

Talde parte-hartzaile bakoitzak gai jartzaile bat izendatuko du.

Taldeko gai-jartzaileak bere taldeko saioa prestatuko du. Gai-jartzaile orokorrarekin (Lierni Altuna) koordinazioan saioa borobilduko dute. Taldeetako gai-jartzaileak bere taldeko saioa aurkeztuko du.

2. Fasea

Talde parte-hartzaile bakoitzak gai-jartzaile bat izendatuko du.

Taldeko gai-jartzaileak eta gai-jartzaile orokorrak saioa prestatuko dute.

Finala

Elkarteko gai-jartzaile taldeak saioa prestatu eta aurkeztuko du.

10. TALDE ANTOLATZAILEA

Kideak: Andere Arriolabengoa, Lierni Altuna, Orlando Arreitunandia, Unai Mendibil, Asier Lafuente.

Talde honek Arabako Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordearekin harreman estuan egingo du lan.

11. BABESLETZA

Babesletza garrantzi handikotzat jotzen dugu Txapelketaren antolaketa behar bezala egin ahal izateko. Honakoak dira aurtengo txapelketako babesle nagusiak:

- Arabako Foru Aldundia
- Caja Vital Kutxa
- Gasteizko Udala
- El Correo
- Udapa

Hauek dira txapelketako babesle orokorrak, baina aipatzekoa da ere, saio bakoitza egingo den lekuetako babesle lokalen laguntza ezinbestekoa, baita bestelako irrati eta komunikabide laguntzaileena.

Eskerrik asko guztiei.

12. WEB GUNEA

Aurten ere ahalegin berezia egin eta egingo da www.bertsozale.com web -gunean informazio osatua eta eguneratua sartzeko euskaraz eta gazteleraz.

Oraingoz, honakoa izango da bertan aurkituko duzuen txapelketaren inguruko informazioa:

- Arabako txapelketaren historia
- Saioen egitaraua
- Txapelketan parte hartuko taldeen argazkiak
- Bertsolariek egin beharreko lana
- Talde antolatzaile, epaile eta gai-jartzaileen berri.
- Babesleak

Behin txapelketa hasita, saio bakoitzaren ondoren, informazio eguneratua egongo da saio bakoitzaren berri emanez jarraipena bertatik ere egin ahal izateko.